

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fede Iturriagagoitia Mallagarai
Ermua Bizkaia
(1933)

Aurkibidea



Biografia



Ermuko Irulitxa kaleko "Iturriaganeko" etxean jaio zen 1933an, Jose Ramon eta Isabel andra-gizonak izandako 5 seme-alaben artean. Arantza Malkorra Arroa Goitarrarekin ezkondu zen eta 3 seme-alaba izan zituzten. Aitaren arrimuan ikasi zituen Ermua inguruko txorien kantu, izen eta ohiturak. Ehiztari amorratua; ehizatu izan dituen hegazti bereziak disekatu egin izan ditu: 100 hegazti desberdin inguru ditu bilduta, ia denak berak harrapatuta, eta gehienak Euskal Herrian. Bilduma hori Ermuko Udalaren eskuetan laga zuen, ezagutzera eman zezaten.

Zintak

ERM-008

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2002-05-30
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

ERM-009

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2002-05-30
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Gazte-gaztetatik ehizan

- **Erref:** ERM-008/002
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:00:42. **Bukatu:** 00:03:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Aita nazionalista zenez, ez zioten ehiza-lizentziarik ematen. Horregatik, Aixola Errekara joaten ziren, leku ezkutua zelako. Bera aitarekin joaten zen, kalibre txikiko eskopetarekin (txinbera). Eskopetak non gordetzen zituzten. 17 urterekin atera zuen lizentzia.

2. Katamixarrak harrapatzen

- **Erref:** ERM-008/003
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:03:52. **Bukatu:** 00:06:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Aitak erreklamoaz ehizatzen zuen; katamixarren erreklamoaz zuela esaten zuen, brometan. Geldi egotea ei da katamixarrak ikusteko teknika. Eitzaga aldean harrapatzen zituzten.

3. Katamixarrak jaten

- **Erref:** ERM-008/004
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:06:19. **Bukatu:** 00:08:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Gisatuta jaten ziren katamixarrak. Gozoa eta garbia ei da. Andreak uko egin zion gertatzeari. Lehen jan egiten zen ehiza guztia, orain ez. Lehengo eta oraingo ehizaz iruzkinak. Katamixar ehiztari gutxi.

4. Zozo-birigarrotan eta eperretan

- **Erref:** ERM-008/005
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:08:31. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:

<p>Zozo-birigarrotan ibiltzen ziren gehienbat. Eperretan Nafarroan. Oilagorretan Oiz aldean.</p>

Transkripzioa

-Eta bestela zozotan, zozo-bidigarrotan...

-Ta eskillarasua ta horixe. Lizentziak hartu arte, nik hamasei, hamazazpi, hamazortzi urtera arte. Eske ni ya hamazortzi-hemeretzi urtekin motua, Vespa zar bat zekan aittak eta harekin Bianara joaten giñan eperretara ya. Bueno, aparte udan eta hola, pare bat bidar urtian. Ostantzian ba

hamentxe, Trabakutik Markiñarutz, hortxe kanteretan eta be bai eitten genduan. Baiña beti guk zozo-bidigarrotan. Oillagorretan aittak hamengo Ermuko jentiakin iñoz salida batzuk ein zittuan, Oizera ta. Gaiñera baten zazpi hil zittuen. Gaur asko da, orduan faziltxuao. Zapatu arratsaldian urten bazkalostian eta domeka illuntzian etorri ein eben. Muniozgurenen pentsatzen dot gaua ein ebela, bazkaldu ta bestia; afaldu ta abar, eta lo. -Munittibar inguruan edo?

-Ez, Muniozguren dago hamen Trabakutik, Geria ta honek basarrixok, ta azkena Muniozguren da. Bai, hori dok, pastoriena ta. Abioia eroi zuan ba hamen Oizen. Muniozgureko semia jua zuan lenea hara legau zana. Osea, euren basarrixa baiño bastante goratxuao, baiña hantxe, Oizko punta aldera, bai.

5. Erreklamoarekin ehizan

- **Erref:** ERM-008/006
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:12:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Sastraka artean ezkutatuta egiten da erreklamoaz ehizan. Erreklamoak jo eta txoria etorri egiten da. Geldi-geldi egon behar. Azkar tiratu behar, bista ona dutenez berehala ikusten zaituztelako. Eskilarasoa bizkorragoa zozoa baino.

Transkripzioa

-Eta reklamuakin zela eitten da kasan?

-Bueno. Reklamuakin guk eitten genduan, lehen esan dutsut hasieran, iñor ez zala ibiltzen hor. Eske peligrasua da ta. [...]. Reklamuakin eitten genduan moruan ba gaur egunian ezin leike ein. Klaro, aintziñan geuk be eitten genduan baiña eze. Eitten da sasi artian norbera. Sasixa edo arbolia behintzat egon dailla, arbola asko, ez deiken txorixak nobera ikusi. Ezkutauta egon bihar zara. Eta puntu askotan zela [dittuzun] ba txabolarik sekula guk ez genduan sekula be ez. Lekuak hartuta tokixak. Honbre, hamentxe hiru edo lau arbola daoak eta tapauta goittik eta ertzetatik be puxkat sasixa edo. Hantxe. Ahuakin aparato bat, halako anilla bat; horrek saldu eitten zien, prohibiduta zeuan baiña saltzia libre zan armerixetan-eta. Ta "txok-txok-txok-txok", harekin jotzen eban reklamua ta zozuak "txok-txok" kontestau eitten dau. Noberak be "txok-txok, txok-txok", osea, dihar eitten euren berbetia. Da, xxxiu!, halakon baten ikusten dozu legau dala adar batera, tak! Bixkor tiratu bihar, osea, bixkor-bixkor, osea, azkar, eze eiten dabe arbolan geratu eta bu!, atzera fuera. Klaro, eske ezkutauta zaoz baiña bistan zaoz. Urreratzen darian bera ba nobera... Iñoz eskillarasua ta oinddiok peligrasua eskillarasua, osea, azkarraua. Etorri ta adarra ikutu orduko fuera atzera. Ta bizixaua da. Ta iñoz ba eskillasua urrin, nobera ikusten urrin txamar, bueno, tiroatik fuera. Arbolatik igual lurrera, tak. Kaak! eta kaak!, jotzen gotsan reklamua ta hantxe. Orduan esaten eban aittak, "begirik be ez mobidu, e". Je-je, hauxe begixekin be ez eitteko, "begirik be ez mobidu". Hori bai, txorixak bista haundixa daka eurak. Mobimentuik badao ikusi eitten dau. Geldi bazaoz ba bueno. Pasa. Baiña mobimentu txiki bat ein ezker, adios!

6. Eskilarasoa

- **Erref:** ERM-008/007
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:12:22. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Eskilarasoa polita eta azkarra da, afan handia izaten zuen mutikotatik ehizatzeke. Hazi ere egin daitezke etxean kumeak habiatik hartuta.

7. Lehen baino zozo gehiago herri barruetan

- **Erref:** ERM-008/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Gaur egun herri barruetako arbola eta parkeetan txori asko ikusten da, zozoak batez ere. Zarauzko adibidea.

8. Txantxangorria

- **Erref:** ERM-008/009
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Txantxangorriak konfiantza handia hartzen du pertsonarekin. Ilobari txorien berri erakusten.

Transkripzioa

-Txantxagorrixa da txorixa konfiantza haundixa hartzen dabena personiakin. Nik hor txabola bat, esan dotsut, txabolatxo bat, ezebez, ez, da terreno puxkat eta lorak eta ipintzen. Lengunian be andriakin han nebilen. Areñeun, exakto, areñeun arratsaldian. Baiña, klaro, nik atxurtu ta berak lorak ipiñi ta bestia ta. Txantxagorrixa metro bira. Edo gutxiao. Ni hamen lanian eta hortxe txantxagorrixa ta harutzatxuao andria ta. "Arantxa, horixe da txantxagorrixa, beittuizu zer dan, horixe da". "Hori txikixoi?", ta "bai, horixe da". Loibatxuui-ta esaten dotsa, Aratzek, urte bi dakaz eta: "Hau zozua ta txantxagorrixa", erakutsitta dakadaz. Badakiz, ama ta lengunian beranak estraiñauta: "Hau txantxangorrixa ta hau zozua". Eta esaten dotsa: "Txabolara jungo gaz eta ikusiko douz han

txantxagorrixak" eta. Klaro, hori sarri ikusten da, zozua be bai ta txantxagorrixa be bai. Txantxagorrixa bertan kontinuanten, osea, konfiantza haundixa hartzen dau personiakin. Ez bajako molestutzen, bertan jartzen da. Eta, karo, atxurtu edo ein ezkeru pixkat eurak ensegida datoz koko billa edo zeoze billa.

9. Mikak

- **Erref:** ERM-008/010
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:18:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Mikak bere lurraldeak izaten ditu. Santamain aldean sekula ez du mikarik ikusi. Herriatik hurbilago, oster, Berano aldean eta, bai. Artaldea zegoen leku batera etortzen hasi ziren baina joan den urtetan ez dira agertu.

Transkripzioa

-Aittatu zostazun lengunian eskillasuak eta mikak eta bakoitzak territorio bat zekala.

-Bai. Nik ezautu dotena, eta beste batzuk be esan leikek, klaro. Beti izan bihar die ehiztarixak ze kaleko jentia ez da konturatzen. Baiña porrejenplo esan dotena, Elgetatik datorren erreka Aixolara, bueno, Aixola erreka Eitzaraiño. Eskumara behetik gora goiazela Elgetarutz eskumara da Santamain aldea, Santamain aldea. Hor sekula, Santamain, Urantzu, Santamain gaiña, pase lekua, sekula hor mikaik ez neban ikusi. Hor ekin errekatik trenbidetik hor gora. Sekula be ez. Eskillarasuak eta bai. Beste toki bat zan, ni Ermuko estaziño kalia jaixua naz, ta joaten giñan Abeletxe, hor basarri bat dao, ta horren ostian Ultzama esaten jakona. Gero Karia, Eibartik ikusten dan mendixa Karia. Hor sekula mikarik ez neban ikusi. Sekula be ez. Ta urrian, urrian, zer esango dotsut nik, kanteretatik gora basarrixak, Geria edo zelan dira? Geria ez, ez, harutzao... Berano, Berano txiki ta. Hor mikia. Berano Txikitik Trabakura, Trabakutik Hanbrera, hor mikia. Eta esan dotsuten toki bixetan sekula mikaik ez dot ikusi. Bueno, ointxe bost, zelan bizi nazen hortxe anbulatorio onduan, ba ointxe bost-sei urte agertu zien mikak. Ze ardixak dakaz gizon batek hor, ardixak, ta nik pentsatzen neban hiorraxe, haren ingurura desdeluego etortzen ziran, jatera harena zeoze, ardixena. Ta umiak be ein zittuen hortxe. Ze parejatxua ibiltzen zan eta gero agertu zan mordotxua, sei edo. Aurten atzera ez die agertu. Neu bakarrik ez, neure auzokua ta komentarioak eitten: "Ene!, mikak agertu, mikak" eta. "Sei dabixak, umiak ein jittuk". Ta atzera be ezkutau ein dira.

10. Txori txikiak

- **Erref:** ERM-008/011
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:18:34. **Bukatu:** 00:19:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Txepetxa, tximutxak, katanarra, txirixua, sasi-txiuak, paranda, buztanikara, txinbo reala, artatxoria, armatxoria...

11. Txori handiak, harrapariak

- **Erref:** ERM-008/012
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:19:58. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Miru txikia eta handia, arruntenak hemen. Santamaina aldean egiten zituzten umeak. Gabilara. Buztan-urkila (milano real) hemendik pasatu bai, baina ez ei da hemengoa. Miru zuri handi bat ikusi zuen behin. Arranoak (saiak), gutxi hemen.

12. Gardantxiloak eta txirriskilak kaiolan

- **Erref:** ERM-008/014
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:25:46. **Bukatu:** 00:27:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Kardantxiloak eta txirriskilak izaten zituen aitak kaiolan. Hurbil zeuden habietatik erakartzen zituen

13. Baserriko andrak astoaz atzera-aurrera

- **Erref:** ERM-008/015
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:27:32. **Bukatu:** 00:30:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Miru handi bat ere izan zuten etxean. Txori txikiak ematen zizkioten jaten. Hari begira geratzen ziren baserriko andrak Eibarko plazatik astoaz itzultzerakoan. Oso tipikotzat du estanpa hura.

14. Mirua galdu

- **Erref:** ERM-008/016
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:30:36. **Bukatu:** 00:31:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Natura » Fauna

Laburpena:

Bilbora joan zen ikastera. Aitak abisatu zion mirua galdu egin zela. Auzoko ehiztari batek ikusten ei zuen.

15. Oilagorretan

- **Erref:** ERM-008/017
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:31:38. **Bukatu:** 00:33:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Aitarekin egin zuen ehizan 27 urte arte. Ezkonduta gero oilagorretan egin izan du. Oilagortari baten aholkuak: "segidu txakurrari".

16. Ehizarik onena: txakurrarekin oilagarretan

- **Erref:** ERM-008/018
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:33:38. **Bukatu:** 00:35:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Ehiza politak asko daude, baina berari txakurrarekin oilagorretan gustatzen zaio. Nahiz eta batere harrapatu ez, poztu egiten du norbera txakurraren lanak. Bi lan batera: norberarena eta txakurrarena.

17. Ehizarik onena, zailena

- **Erref:** ERM-008/019
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:35:42. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Zirraragarrienak ehiza zailak ei dira. Errazena: itxoin, eta datozenean tiratu, baina horrek ez du hainbeste grazia. Txakur barik ere egin izan du eperretan. Oilagorretan txakurrarekin, berarentzat onena.

Transkripzioa

-Esan leike kazarixendako kazia zenbat eta zailagua polittaua dala?
-Nik neuk pentsatzen dot baietz, neutako bai. Neuretako bai, ze erreza, errezena zein dok? Jarri pasian eta eon, itxain. Ein hamarretakua ta datozenian tiratu. Ta zenbat eta eskupeta hobia ta kartutxo hobiak bentaja, punto! Eta hi ba neu be egon nok iñoz. Bale! Baiña ez dok neuretako hainbeste emozionante bestia, oillagorretia edo eperretan edo moruan. Eperretia be ein juat nik txakur barik. Orduan Bianara joaten giñanian motorrian eta txakur barik. Baiña txakurrakin be ein juat. Eta, klaro, txakurra ikasitta egon bihar dok ondo. Baiña txakurrakin asko hobeto, emozionantiaua dok... Klaro, txakurra ikusten dok lanian han makur-makur einda ta bestia ta. Hobiaua dok, ze nobera eperretan dabilleniak dok, noberak ikusten badau bandua, segiru. Ta ostantzian hoiala bu! jaikitzen dokk eta , inesperadamente ta, ba. Joten ba dok bien eta bestela aurrera. Baina ez dok, diferentzia haundixa daok neretako. Oilagorretia dok neuretako onena. Hamen, e, hamen, klaro.

18. Txakurraren berezko sena

- **Erref:** ERM-008/020
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Txakurrak berezko sena du, baina erakutsi egin behar zaio, eraman egin behar da lekuetara. Txakurren artean ere denetik dago. Oilagorretan ugazabagandik urrun ibili behar du, eperretan eta galeperretan gertu. Txakurrak berehala igartzen dio zein ehiza motaren aurrean dagoen.</p>

19. Lehen ehiztari gehiago

- **Erref:** ERM-008/021
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:42:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Sasoi baten orain baino ehiztari gehiago zegoen. Oilagortari, erbitari..., denetik.

20. Ehizarako txakur-klaseak

- **Erref:** ERM-008/022
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:42:00. **Bukatu:** 00:45:11

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Pointerrak, oilagorretan zein eperretan. Seterra hobea oilagorretarako. Txinbo txakurrik ez du sekula izan. Lehen txilina eramaten zuten, eta isiltzen bazen, geratu denaren seinale. Orain geratutakoan txistua ateratzen duen aparatu bat daramate eta errazagoa da lokalizatzea.</p>

21. Espaniela ehizarako?

- **Erref:** ERM-008/023
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:45:11. **Bukatu:** 00:46:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Txinbo txakurrik ez du erabili, baina onak direla ei diote hildako txoria ekartzeko eta. Espaniela polita ei da, baina ez ei du emaitza onegirik eman.</p>

22. Ehiza-txakurrek "txilina" eta "tanganilloa"

- **Erref:** ERM-008/024
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:46:24. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Txilina edo arrana esaten zaio ehiza-txakurrek eramaten duten lepoko kanpaitxoari. "Tanganilloa" ehiza ahoan ezin hartu ahal izateko lepoan inoiz jartzen zaion makilari esaten zaio. Ehiza sasotik kanpora erabili izan da batez ere. Traba egiteko. Gutxi ikusi du.</p>

23. Eskopeta klaseak

- **Erref:** ERM-008/025
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:51:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Txinbera: "hamabiko txikixa", kanoi bakarrekoea edo bikoa. Hamabiko haundia. Gero bost tirokoak, hirukoak eta abar. Tiro bakarra balitz ere meritu berdina izango lukete ehiztariek, eta hegaztiekin irtengo lirateke irabazten.

24. Kalibre kontuak

- **Erref:** ERM-008/026
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:51:05. **Bukatu:** 00:52:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Kalibre kontuak: ez daki zergatik deitzen zaien hamabikoa, hamaseikoa eta abar. Hemen hamabiko txikia zen txikiena. Tiro bakarrekoa edo bikotxa.

25. Haizezko karabina

- **Erref:** ERM-008/027
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:52:48. **Bukatu:** 00:54:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Haizezkoak dira karabinak. Balinak botatzen dituzte. Kartutxo txiki batzuk ere bai, perdigoi txiki-txikiekin. Ez ei zuten ezertarako balio, baina behin txori bat harrapatu zuen horrela.

26. Ehizan egiteko formak: keixapian eta pikupian

- **Erref:** ERM-008/030
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:57:18. **Bukatu:** 01:00:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Keixapian (gerezipean): txabolatxoak egin azpian; txoria gereziak jatera datorrenean tiro. Guardarekin gertatua. Berak ez du sekula egin. Hutsegite handia deritzo, amea hilez gero txorikumeak ez direlako biziko. Pikupean, berriz, egindakoa da.</p>

27. Ehiza sistema: "eskeran"

- **Erref:** ERM-008/031
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:00:38. **Bukatu:** 01:02:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Beste ehiza sistema bat: zelaiak banatzeko sasizko hesian, "eskeran", zozo-birigarroak egoten dira. Uxatu, irtenarazi eta hil. Mutikotan ere ibiltzen ziren "eskeran".</p>

28. Hormatxoriak jan ezin

- **Erref:** ERM-009/001
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Hormatxoriak harrapatu zituen duela gutxi. Lumatu eta prestatu, baina hain gogorra zeudenez ezin jan.

29. Haragi fineko hegaztiak

- **Erref:** ERM-009/002
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:03:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Badira haragi gogorreko eta fineko hegaztiak, azkenen artean kalandresa, oilagorra... Bera ez da izan ehiza jalea. Txori txikien artean, txinboa zen estimatuena.

30. Txinboak

- **Erref:** ERM-009/003
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:06:07

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Txinboak; "pinpina" ere deitzen zaio ugarienari. Sasi-txinboak gutxi izaten dira. Txinboak bandada txikietan ibiltzen dira, ehiztari afizionatuen ehiza mota. Gaur egun debekatuta egongo ei da hori.

31. Errekan arrantzan

- **Erref:** ERM-009/004
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:06:07. **Bukatu:** 00:07:51

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Errekan kangrejoak, sargo-ekailuak eta abar ("peska zeia") harrapatzen zen. Gaur egun ez dago ezer.

32. Uroiloa eta urzozoa

- **Erref:** ERM-009/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:07:51. **Bukatu:** 00:10:06

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Ur-zozo banaka batzuk harrapatuta dago. Bazen uroilotan ibiltzen zen ermuar bat. Oraintsu ere ikusi dituzte uroiloak Eitzaga aldean.

33. Errekako hegaztiak

- **Erref:** ERM-009/006
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:10:06. **Bukatu:** 00:11:42

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Uroiloa, urzozoa, buztanikara, ur-makinista, zertzeta eta ahatea dira hemen ur ondoko hegaztiak. Orain ahateak asko ugaritu dira Deba Ibaian.

34. Zertzetak

- **Erref:** ERM-009/007
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:14:10

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Zertzetak sarri ikusten ziren neguan. Hainbat kontu hegazti horri buruz. Gogoan du aita bakoitiko nola hiltzen zituen.

35. Ur txakurra

- **Erref:** ERM-009/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:18:50

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

- Natura » Fauna

Laburpena:

Mikelete batek urtxakurra (ugaberea) harrapatu ei zuen behin errekan. Baina sekula ez du berak ikusi.

36. Txakurrak piztia susmatu Gorbeian

- **Erref:** ERM-009/010
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:20:22

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Ez du katamixarrik, katajinetarik eta horrelakorik harrapatu izan. Gorbeiaiko pagadi batean txakurrak piztiaren bat susmatu zuenekoa.

37. Sareez arrantza egitea bentaja errekaentzat

- **Erref:** ERM-009/013
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:26:35

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Ermuko arrantzale batek esaten zuenez, sareekin errekan arrantza egitea onerako da, harri gaineko goroldioa mugitzen delako. Bat dator bera.

38. Arrantza ehiza bezain zirraragarria

- **Erref:** ERM-009/015
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:31:34

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Oso aspergarritzat zuten arrantzan egitea aita eta biak, baina aita arrantzan hasi zenean iritziz aldatu zen: erreklamoaz ehizan egitea bezain zirraragarria zela arrantza hori esaten zuen.

39. Ermuko kalearen aldaketak

- **Erref:** ERM-009/019
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:44:06. **Bukatu:** 00:46:47

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Kalean hainbat kale-baserri zegoen: Infrañu, Santuko, Patagonia... Eta hortik gorakoa dena zelai eta soro zen. 1960 aldera hasi ziren etxeak egiten, batez ere Santa Ana aldean.

40. Gerra osteko Ermua

- **Erref:** ERM-009/022
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:52:12. **Bukatu:** 00:56:12

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Hiru ertzen (Malengo, Estaziño Kalea eta Katxango) erdian zegoena zen Ermua. Izenak eta xehetasunak. Patagonia, Zerukua... Oso kasko txikia zuen.

41. Denak euskaldunak

- **Erref:** ERM-009/024
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:58:44. **Bukatu:** 01:00:16

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

1.500-2.000 biztanle inguru izango zituen gerra ostean Ermuak, denak euskaldunak, guardia zibilak edo kenduta. Eskolan dena erdaraz, baina elkarrekin euskaraz egiten zuten. Durango eta Bergarak

42. Eibar, kategoria handiko herria

- **Erref:** ERM-009/025
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:00:16. **Bukatu:** 01:02:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Durango eta bergararrak harro fama zuten. Eibar, berriz, kategoria handiko herria izan da munduan. Herri jatorra. Ez da ikusiezirik egon eibartarren eta ermuarren artean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com